

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

25/2020 Foru Agindua, otsailaren 5koa, hasierako onarpena ematen diona interes publikoaren adierazpen espedienteari, Aramaioko lurzoru urbanizazinean iturriak jaso eta Legutioko andel erregulatzailerari lotzeko proiekturako

Legutioko Administrazio Batzarrak Aramaioko Udalari udal lizentzia eskatu dio bertako lurzoru urbanizazinean kokatutako zenbait lurzatitan iturriak jaso eta Legutioko andel erregulatzailerari lotzeko proiektua eraikitzeko obretarako.

Aramaioko Udalak espedientea (aurkeztutako proiektuaren CDarekin) bidali eta proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetzeko eskatu du, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak, Legutioko Administrazio Batzarraren lankidetzarekin, xede hau duen proiektua idazteko agindu zuen: "Pagola eta Txisturri erreketan edateko uraren bilketa berri bi egiteko eta Legutioko 1.000 m³-ko andel erregulatzailerari lotzeko beharrezkoa den hoditerirako obrak definitzea".

Proiektuaren memoriaren arabera, Legutiok aldaketa sakona jasan du azken urteotan, urbanizazio asko egin baitira, eta daukan biltegiak 1.000 m³-ko edukiera du, urteetan zehar ura hornitu ohi duten zenbait iturritako ur emaria erregulatzeko. Iturri horietako asko Albertia mendia-aren hegaletan daude kokatuta, eta zuzeneko eragina jasan dute AP-1 autopista eta AHTeko tunelak egitearen ondorioz. Legutioko ur hornidurak aparteko hornidura dauka beharrezko den aldietako eskaera betetzeko, Albina urtegiko urarena, nahiz eta aukera horrek ez duen kalitate ona eskaintzen. Halaber, aipatzen da Legutioko horniduratik edateko ura ematen zaiela Legutio, Ollerieta eta Elosuri.

Proiektuaren 4. eranskinean jasotzen da Aramaioko 8. poligonoko 156, 120 eta 132 A lurzatiei eragiten diela.

Era berean, espedientean Aramaioko udal arkitektoak jaulkitako txostena eransten da, non jasotzen baita, lehenik, proiektuari kalitate eta kontrol plana falta zaiola eta URAREN eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baimenak aurkeztu behar direla. Hala ere, dokumentazio falta hori zuzentzen den bitartean, ulertzen du onura publikoaren adierazpena izapidetu behar dela, eskatutako udal lizentzia izapidetzean jaso behar ez dena inondik inora.

Egin beharreko obrak Aramaioko hirigintza araudiari egokitzea dela eta, udal txostenak jasotzen du proiektua lurzoru urbanizazinean sailkatutako eta "Babes bereziko zona: basogintzako balioa" izeneko J.1.4 zona gisa kalifikatutako lurretatik pasatzen dela, udalerriko hiri antolamendurako plan orokorrean aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta "Babes bereziko J1 eta babestutako J2 landa eremuetan kalifikazio orokorrak zuzenean baimendu ditzakeen erabileren sailkapen generikoa" izeneko 1.6.2.1. artikulua finkatzen duela eraikuntza erabilera baimendu gisa hau: "Beraien izaera eta ezaugarrien ondorioz nahitaez landa inguruan kokatuta egon beharreko zerbitzuak eskainiko dituzten eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak, gizarte-interesekoa badute, hori horrela dela arloko legediak edo lurralde planeamenduak eta hirigintzari buruzko eskumena duen Arabako Foru Aldundiko erakundeak adierazi badute, (...)".

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeit egunetz jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren"

Bigarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onespina izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onarpena ematea interes publikoaren adierazpen espedienteari, Aramaioko lurzoru urbanizaezinean iturriak jaso eta Legutioko andel erregulatzailari lotzeko proiektua eraikitzeko. Obra Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak sustatzen du, Legutioko Administrazio Batzarraren lankidetzarekin.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeit egunetz, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Gasteiz, 2020ko otsailaren 5a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO